

**DANIELA ALBIZU
EUSKALTZALE URRUÑARRA
EZIN AHANTZIZ**

Norbaitek erran zuen behin, gure artean badirela behin borrokatu direnak; horiek garrantzi handikoak dira. Badira beste batzuk denboraldi luze batez borrokan aritu direnak eta horiek oraindik garrantzitsuagoak dira; baina izan badira, bizitza osoa borrokari eman diotenak eta horiek ezinbestekoak ditugu. Zendu berria dugun Daniela Albizu azken horietakoa genuen, bizitza osoa eman baitzuen euskararen eta Euskal Herriaren aldeko borrokari atxikirik.

Daniela Albizu Urruñan sortu zen 1936ko maiatzaren 23an. Aita arabarra zuen, Ilarduia herrikoa, eta ama gipuzkoarra, Urtsuaran aldekoa. Espainiarrek aita deitu zuten Marokoko Rif aldera, bertako matxinoen aurka borrokatzera joateko eta albizutarrek, bi aldiz pentsatu gabe, azienda eta ondasun urriak gurdian sartu eta Lapurdira etorri ziren. Lau seme-alabak Urruñan sortu zitzaizkien.

Danielak, haurra zelarik, euskararen aurkako jarrera eta debekuak ezagutu zituen eskola frantsesean. Orduan deliberatu zuen euskaraz eta euskararen alde egitea. Maistra ikasketak bukatu zituen eta berehala lanean hasi zen Garazi aldean. Han, berriz ere, frantses administrazioak euskararen aurka erabiltzen zuen jokaera makurra topatu zuen. Joko zikin horretan lagundu beharrean, euskaldunen auto-estima garatzen eta orduz kanpo, hango gaztetxoak euskaraz alfabetatzen ahalgindu zen. Handik hainbat urtetara, irakasle titulua atzeman



zuen eta orduz geroztik Donibane Lohizuneko Ravel eta Hendaiako Irandatz lizeoetan aritu zen frantsesa, espainola eta euskara irakasten.

Urruñan euskal mintzaira eta sentimendua pizten saiatu zen etengabe. Horrela, beste sei emaztekirekin batera, 1978an, Hazia euskal kultur elkartearen sortzean parte hartu zuen. 1982ko udal hauteskundeetan zinegotzi atera zen Herritarrak mugimendu abertzalearen ordezkari gisa. Abertzaleek Urruñan izan duten lehen zinegotzi abertzalea izan zen. Bederatzi urte luzez, aurre egin behar izan zion Daniel Poulou auzapez eskuindarrari. Ainitz sufritu zuen eta ainitz sufriarazi zuten.

Bere autobiografia labur batean kontatzen duenez Poulou beti trufaka aritzen omen zitzaion: *Vous voyez bien, Madame Pilotte, il n'y a que vous qui demandez ça!* (Ikusten duzu, *Pilote Anderea* –senarraren abizena- horrelakorik zuk bakarrik eskatzen duzula).

Sufrikario horiek guziak gibelean gelditu ziren. Gaur abertzaleek oposizio sendoa osatzen dute eta herriko etxe-ko gobernua eskuratzeko prest daude. Bitartean, Daniel Poulou eskuindar nostalgikoen oroitzapen hutsa da, besterik ez.

Danielak, berriz, ez zuen nehoiz etsi, eta beti lanean, irakaskuntzan, kulturaren, literaturan, itzulpengintzan, ikerkuntzan, euskarazko material pedagogikoen sorkuntzan, bakegintzan, preso eta iheslarien aldeko laguntzan... aritu izan zen bizitza osoan. Emazte langile eta militantea izan da beti.

Bizitzan arras momentu minberak bizitu behar izan zituen. 1990. urtean, auto istripu batek Tolosako unibertsitatean ikasten ari zen Domena alabaren bizia moztu zuen. Ikaragarri gogorra izan zen eta Daniela saminean murgildurik ibili zen luzaz. Honela zioen “*Domenari bihotz osoz*” izeneko olerkian: “*Ene sabelean sortua / hor zaitut berriz etorria, / Domena ene maitetia. / Betetzen didazu, ARGIA, ene izaite guzia.*” Orduz geroztik, Domenaren oroitzapena beti ukan zuen bihotzean estekaturik.





Daniela, 1993ko abuztuan, Jone Tremant eta Paskale Arribillaga lagunekin batera, Izarlandako Done Jakuera egin erromesaldian.





Bere militantzia politikoak Hegoaldetik zetozen iheslariak laguntzera eta aterpetzera eraman zuten. Polizia frantsesek 2003an atxilotu eta Fleury- Mérogis-eko presondegira eraman zuten. Bertan egon zen bi hilabete luzez.

Horrela kontatu zuen *“Loretan ez nuzu batere lorietan”* olerki autobiografikoan: *“Loretan deitzen da... gaztelu bat, Parisen inguruan. / Loretan, holako izenarekin ederra daiteke! / Errazu uste duzula! Harresi lodi eta gorak... / leihoek burdin bagak dituzte / (...) / Eta zu gaztelu hortan egon zira?”*

/ Bai, bortxaz, bi hilabetez baizik, zorionez. / A, ulertzen hasia naiz! / Loretan: Fleury, Fleury-Mérogis, Allée des Peupliers, Sainte-Geneviève-des-Bois herrian den presondegia. / Hor diranak ez dira batere lorietan!

Gartzelan zegoela, kuku batek bisita egin zion behin, leihoko barroteen artera igota. Danielak honela kontatu zigun “*Kukua*” izeneko olerkian: *Zer hotza dunan hemen! Alta, maiatzean gauden. / Baaa! Parisen baiz! Euskal Herria goxoagoa dun! Hala pentsatzen ari zela, leihotik hurbildu zen kuku bat / eta bi burdin bagen artetik kanpora begiratu./ (...) /Kuku maitea, zer plazera hire entzutea! / Kantu berbera Euskal Herrian eta mundu guzian / ematen diguzue zuek, xori miresgarriak!*

Presondegitik ateratzerakoan, Hendaiako hondartzan bainatu eta Larrun mendira igo zen berreskuratutako askatasunaren xerka. Horrela kontatu zigun “*Etixerat itzultzean*” olerkian: *Bai, preso batentzat eguneroko gauza horiek / zinez miresgarriak dira, askatzen dutelarik./*

Espetxean utzi ditudan laguneri, / nola erraiten abal niekeen... / biharamun berean, itsasoan igerika ibili naizela, /

laino eta euria izan arren? / Bozkarioz betea, Larrunera igo naizela,... / biltzen ari den bati ez diozu erraiten abal: badoa? / Presoak oroituz, tristura eta oldartzez betetzen zait bibotza.

Euskalgintzan sekulako lan handia egin zuen ehunka artikulu plazaratuz, itzulpenak eginez, Gure Irratia-rako saioak burutuz, gazteendako euskarazko material pedagogikoa sortuz eta euskarazko lau liburu eder argitaratuz: *Hiru uhainak*, 1979. Elkar. Ipuin zahar baten moldapena, *Lau sasoi, lau ipui*, 2003. Maiatz. Lau ipuinen bilduma, *Ilargi eta hontz sorginen ipuinak*, 2006. Pyrémonde. Ipuin bilduma eta *Iturri-aldeko nere leihotik*, 2011. Maiatz. Literatur lanen bilduma.

2004an, Manex Goienetxe hil zelarik honako olerki ederra eskaini zion: *Manex ibiltari / ibiltariak bere biziaren bidaiia /*

*bukatuko du. / Mendiz mendi ibili da, / bain gora, bain trebe,
/ kezkak eta bihotz minak / bidean utzi nabiz, / eta azkenean
/ beriotza haren xeka etorri da, ! bertze munduan sar dadin, /
bere lagunarekin. // Manex, hor, zure semea / aurkitu ote du-
zu? / Mugagabeko mundu hortan / badukezu non ikertu, /
non ibili? / Ez adiorik lagun maitea.*

Presoen aldeko manifestazioetan poliziaren bortizkeria hur-
biletik ezagutu eta kontatu egin zuen “Marea urdin iluna” ize-
neko olerkian: *Marea beltza, maltzurkeria, podere gosea. / Ma-
rea urdina, maitasuna, elkartasuna. / Eta marea urdin-beltza,
ezagutzen duzue, ezta? / Gizon multxo urdin ilunez jantziak /
botak eta kaska beltzak, / herri zainak, omen. / Herritarrak
kexatuak biltzen direlarik / justizia-tegiaren sartzean / bul-
tzaka, ostikoka, / negar egiteko bonbak botaka. Ai zer... lotsa! /
A, orain badakizue nor diren? / Aingeru beltzak, / zeberrezak.*

Azken urteetan unatzen hasia zen, eta bere burua akitzen.
Berak ongitxo zekien hori, guztiz kontzientea zen, eta horrela
kontatu zigun “Abulezia” izeneko olerkian: *Xoriak ez du kanta-
tzen, / olerkariak ez du bertsurik asmatzen, / egunero laino xu-
riek / zeru urdina dute estaltzen. // Iduzkia, ilargia eta izarrak /
ez ditugu ikusten, / ekialdeko haize minak / basaki dauku agur-
tzen. // Banoa hartzairen harpera / borren ondoan lo egitera.*




*Hatsaren Poesia Egunean olerki bat irakurtzen.
Amotzeko Larraldean. Senpere.*

Hala eta guztiz ere, tinko jarraitu zuen euskararen eta Euskal Herriaren aldeko borrokan. Garbi zuen zein ziren batzuk eta non besteak, eta bera zein aldetan kokaturik zegoen. Ikus ezazue Gabriel Arestiren olerki famatuaren oihartzuna dakar-kigun *“Gure etxea defendituko dugu”* olerkian erraiten diguna: *Zoin dira bortizkeria erabiltzen dutenak? / Bi bortizkeria mota dira: / Bortizkeria beroa, / hau da, zuzentasuna errespetatua izan dadin / armak hartzen dituztenak; / eta bortizkeria hotza / mina ixilpean barreiatzen duena.*

2011n, *“Iturri-aldeko nire leibotik”* liburua prestatzen ari ginela, *“Ametsa”* izeneko olerkia bukaeran jartzeko eman zidan. Egin zuen azkena omen zen. Jadanik, ez zuen bere burua gai ikusten gehiago idazteko. Ber urtean, Urruñan egin zitzaion omenaldian, paper plegatu bat eman zidan eskura. Olerki bera zen. Auxtin Zamorari emateko eskatu zidan, Hatsuaren Poesia bildumako urteko liburuan plazara zezan. Auxtinek sentimendu handiz jaso eta 2011ko liburuan zuen plaza-ratu. Olerki hori bere testamentua delakoan nago. Bertan, sortzeko eta hiltzeko iragan beharreko tunel luze-ilunaz mintzo zen. Bazekien bere bizitzaren azken txanpan zegoela. *“Bizitzak heriotzari zor”* erraiten dugu euskaldunok, eta horretaz mintzo zen Daniela azken olerki horretan. Haatik, ez du hala-beharraren edo patuaren aitzinean beldur, damu edota penarik agertzen; argirantz iristeko bide natural gisatzat hartzen du.

Bizitzak berekin dakar heriotza, ezinbestekoa da. Ez da tragedia, bizitzaren azken urratsa baizik. Ikus dezagun Danielaren azken olerkian: *Banoa, ilunpetan nintzen, hortxe gordea. / Egun batez, urrun-urrun, argi bat, ez nakien zer zen, ARGIA / Banoa emeki-emeki, argia handitzen ari da / Orai argiak hartzen nau, gelditzen naiz, begiak itxita. / Begiak ideki nituelarik, poz ikaragarri batek hartu ninduen. / Tunel batean nintzen, begiak itxita banoa aintzinean. / Begiak ideki nituelarik, tuneletik ateratu nintzen, argi turrusta batek hartu ninduen / Ikusten nuen, bai eta entzuten xorien kantuak, haurren irriak eta nigarrak... eta abar... / Orduan jakin nuen zer zen BIZIA.*

2015eko otsailaren 26an, 78 urte zituelarik, Daniela Albizuk bizitzaren eta heriotzaren arteko tunela zeharkatu zuen. Orain dagoen tokitik, berriz ere, haurren euskarazko hitzak, txalapartaren ttakuna, euskal kantuen xaramela... entzunen ditu, baita Urruñako plazan mutxikoen urratsak ematen ari den ahotsa ere. Azkenean, Albizu Andreak ongi merezitako atsedena hartu du. Urruñak bere kultur erreferentzia historikorik handiena galdu du.



Baina denok dakigu Daniela ez dela lotan egoten den horietakoa eta hor nonbait ibiliko da, Larrungo gailurrean, Hendaiako hondartzan edota Sokorriko Ama Birjinaren kaperan, haizea, euria eta iduzkiarekin gozatuz. Hor-hemenka ibiliko da urruñarren bihotzetan euskararekiko eta Euskal Herriarekiko maitasuna sustatzen. Daniela Albizu ereile izan zen; belaunaldi gazteei dagokie orain uzta jasotzea. Nahiz eta jadanik, gure artean ez egon, Danielak beti ukanen du txoko bat urruñarren bihotzean. Dena eman zuenak ongitxo merezi du zirrikitu tiki bat gure oroitzapenetan. Marik atxiki dezan betiko ama-lurraren kolkoan, Urruñako emazte borrokalari hau! Adiorik ez, Albizu Anderea!

Joseba Aurkenerena Barandiaran